

Txosten sektoriala

Brasilgo portu-azpiegitura
Mikel Laiseca Blanco

BASQUE TRADE & INVESTMENT BRASIL bulegoa





AURKIBIDEA


1.	1. izenburua	¡Error! Marcador no definido.
1.1	2. izenburua	¡Error! Marcador no definido.
1.1.1	3.izenburua.....	¡Error! Marcador no definido.
2.	1. izenburua	¡Error! Marcador no definido.
2.1	2. izenburua	¡Error! Marcador no definido.
2.1.1	3. izenburua.....	3



1. Ezaugarriak

1.1 Portu-kudeaketa

Brasiliek 8.000 kilometrotik gorako kostalde nabigagarria du. 2017an, 950 milioi tona inguru garraiatu ziren hango portu-sistemaren bitartez. 8.000 kilometrotik gorako kostalde horretan, 37 portu publikoak dira (itsasokoak eta ibaietakoak), eta 155 erabilera pribatukoak.



Portu publikoen kudeaketa bi modutakoa izan daiteke: batetik, *Compañías Docas* deiturikoak daude, gobernu federalaren mendekoak (19 portu kontrolatzen dituzte) eta, bestetik, estatu eta udaletako gobernuen mendekoak (gainerako 18ak kudeatzen dituzte).

Bestalde, Erabilera Pribatuko Terminalak daude: zuzenbide pribatuko pertsona juridikoez jabetu publikoko emakida bidez kudeaturiko instalazioak. Portu antolatuaren eremutik kanpo egoten dira¹.

Compañías Docas

Hona hemen Brasilgo *Compañías Docas* deituriko zazpi erakundeak, eta haien jurisdikziopean dauden portuak:


¹ *Portu antolatuaren eremua*: Botere Exekutiboak mugatutako eremua, portuko instalazioak eta portuko babes- eta sarbide-azpiegiturak biltzen dituena.



1. *Companhia Docas do Pará (CDP)*: Belém, Santarém, Vila do Conde, Altamira, Itaituba eta Óbidos-eko portuak. Eta, horiez gainera, Outerio-ko portu-terminala eta Miramar-eko terminala.
2. *Companhia Docas do Ceará (CDC)*: Fortaleza-ko portua.
3. *Companhia Docas do Rio Grande do Norte (Codern)*: Natal eta Maceió-ko portuak, eta Salineiro de Areia Branca-ko terminala.
4. *Companhia Docas do Estado da Bahia (Codeba)*: Salvador, Ilhéus eta Aratu-ko portuak.
5. *Companhia Docas do Espírito Santo (Codesa)*: Vitória, Barra do Riacho eta Capuaba-ko portuak.
6. *Companhia Docas do Rio de Janeiro (CDRJ)*: Rio de Janeiro, Niterói, Angra dos Reis eta Itaguaí-ko portuak.
7. *Companhia Docas do Estado de São Paulo (Codesp)*: Santos eta Laguna-ko portuak.

2. Portu garrantzitsuenak, trafikobolumena kontuan hartuta


2.1 Portu publikoak



Santos-eko portua

Santos eta Guarujá udaletan dago, São Paulo estatuan. Latinoamerikako porturik garrantzitsuenak izaten jarraitzen du, edukiontzien trafikoari dagokionez.

Representação da Movimentação dos Produtos
Porto de Santos - Imp/Exp - Janeiro/Dezembro (2018)





Brasilgo portu-azpiegituretako trafiko guztiaren % 27,40 igarotzen da portu horretatik.

Gehienez 13 metroko sakonerako itsasontzien trafikoa dago baimenduta (itsasgoran, 15 metro).


Santos-eko portua leku estrategikoan dago kokatuta, São Paulo estatuan, eta hiru garraio-modalitate ditu: errepidezkoa, trenbidezkoa eta hodi bidezkoa.

Itaguaí-ko portua

Itaguaí-ko portua –Sepetiba-ko portua ere esaten diote– Rio de Janeiro estatuan dago, eta 1982ko maiatzaren 7an inauguratu zuten. *Companhia Docas do Rio de Janeiro (CDRJ)* erakundeak kudeatzen du, eta Brasilgo portuetako trafikoaren % 15,31 igarotzen da portu horretatik. 20 metrotik beherako itsasontzien trafikoa dago baimenduta portu horretan.

Errepidezko konexioez gain, Itaguaí-ko portuak sarbidea du *Malha Regional Sudeste* deiturikoaren trenbide-linea batera. MRS Logística SA enpresa emakidadunak kudeatzen du trenbide hori.

Representação da Movimentação dos Produtos
Porto de Itaguaí (Sepetiba) – Imp/Exp – Janeiro/Dezembro (2018)




Fonte: ANTAQ

Paranaguá-ko portua

Paranaguá-ko portua Dom Pedro II izenez ere ezaguna izan zen, Brasilgo enperadorearen omenez. Izen bereko udalerrian dago kokatuta, Paranaguá-ko estatuan. Gehienez 16 metroko sakonerako itsasontzien trafikoa dago baimenduta.

Errepidezko zirkulazioaren sarbide nagusi eta bakarra da Paranaguá hiri barruan, portutik gertu, abiatzen den errepidea. Trenak, berriz, *Malha Sul* deituriko trenbidetik sartzen dira. Rumo Logística enpresa emakidadunak ustiatzen du trenbide hori.

Representação da Movimentação dos Produtos
Porto de Paranaguá – Imp/Exp – Janeiro/Dezembro (2018)




Fonte: ANTAQ

Rio Grande-ko portua

Rio Grande hiria Rio Grande do Sul estatuan dago, Porto Alegre hiriburutik 330 km hegoaldera. 1915eko azaroaren 15ean inauguratu zuten portua. Gobernu federalaren jabetzakoa da, baina, 1997an, Rio Grande do Sul estatuaren esku utzi ziren haren kudeaketa eta ustiaketa. Gehienez 14 metroko sakonerako itsasontzien trafikoa dago baimenduta.

Bitarteko multimodalaren bidezko sarbideak ditu portuak (ibai-bideetatik, errepidez nahiz trenbidez). Rumo Logística konpainiak ustiatzen du trenbiderako

Representação da Movimentação dos Produtos
Porto de Rio Grande – Imp/Exp – Janeiro/Dezembro (2018)



Fonte: ANTAQ



sarbidea.


Suape-ko portua

Suape-ko portua (*Complexo Industrial Portuário Governador Eraldo Gueiros*) Ipojuca eta Cabo de Santo Agostinho udalen artean dago, Pernambuco estatuan. *Companhia Docas de Pernambuco* konpainiak kudeatzen du, eta 1983an inauguratu zen.

Kanpoko portuko itsaso bidezko sarbideak 16,5 metroko sakonera du gutxienez, eta 14,5 metrora arteko sakonerako itsasontziak baimentzen dira, itsasgoran.


Errepidezko eta trenbidezko sarbidea du. Transnordestina Logística enpresak kudeatzen du azken hori.

2.2 Portu pribatuak



Acumulado de Janeiro até Dezembro,
Variación em módulo(%)

Representação da Movimentação dos Produtos
Porto de Suape - Imp/Exp - Janeiro/Dezembro (2018)



Ponta da Madeira itsas terminala

Ponta da Madeira itsas terminala Vale meatzaritzako multinazionalaren jabetzako portu pribatua da. Itaqui-ko portuaren alboan dago, São Luis hiriaren ondoan, eta Brasilgo ipar-ekialdeko São Marcos badiaren parean, Maranhão-n. Pará estatuko Serra dos Carajás meatzeetatik ekarritako burdin mea esportatzea da portuaren funtzio nagusia.

Tubarão-ko terminala

Vitória-ko portutik gertu dago, Espírito Santo estatuan. 18 km²-ko eremua okupatzen du, 4 itsas terminal ditu, eta Vale SA-ren jabetzako da. Burdin mearen, ikatzaren eta ontziratu gabeko ale, ongarrri eta likidoen garraioan aritzen da.



Aquaviário de São Sebastião-ko terminala

São Sebastião-ko terminala São Paulo estatuan dago, eta Transpetro-k –Petrobras petrolio-erraldoiaren enpresa subsidiarioak– kudeatzen du. Estatuko lau findegi hornitzen ditu, São Sebastião-Guarema eta Santos-São Sebastião oliobideen bidez. Deribatuak, berriz, Guararema-Paulínia oliobidetik sartzen eta ateratzen dira terminalera.

Aquaviário de Angra dos Reis-eko terminala

Angra dos Reis-eko terminala Rio de Janeiro estatuko kostaldean dago. Petrobras-en jabetzakoa da, eta Duque de Caxias findegia (Rio de Janeiro estatua) eta Gabriel Passos findegia (Minas Gerais-en) hornitzen ditu. Transpetro enpresa subsidiarioak kudeatzen du.

Ilha Guaíba-ko terminala

Mangaratiba udalean dago, Rio de Janeiro estatuan. 1973an inauguratu zuten, eta Vale SA-ren jabetzakoa da. Portua eraikita dagoen irla kostaldetik oso gertu dago, eta trenbidezko zubi baten bidez lotzen da kontinentera. Trenbide horretatik jasotzen dira salgaiak, nagusiki, burdin mea.

3. Eragile garrantzitsuenak

3.1 Garraio, Portu eta Abiazio Zibilaren Ministerioa (MTPA)

Trenbidezko, errepidezko eta itsasoko garraioaren arloko politika nazionalean jarduten duen administrazio publiko federaleko organoa da. Horrez gainera, jarduerak egiten ditu merkataritzako nabigazioaren, bide nabigagarrien eta ibaietako portuen arloan.

3.2 Portuetako Idazkaritza Nazionala (SEP)

Itsas portuetako azpiegiturak garatzeko neurriak hartzeaz eta politikak proposatzeaz arduratzen den autoritatea da. Horrez gainera, idazkaritza horrek parte hartzen du Brasilgo portuen eta itsas garraioaren garapenaren planteamendu estrategikoan.

3.3 Plangintzarako eta Logistikarako Enpresa (EPL)

Errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak eta ibai-bideak lotuz, herrialdeko logistikaren plangintza bateratuko prozesua egituratzea eta kalifikatzea helburu duen enpresa estatala da. Horretarako, azterketak eta ikerketak egiten ditu.

3.4 Ur-bideetako Garraioaren Agentzia Nazionala (ANTAQ)

SEPeK, Garraio Politikak Bateratzeko Batzorde Nazionalak (CONIT) eta Garraio Ministerioak proposatutako politikak garatzea da ANTAQen helburua. Itsasoz eta ibai-bideetatik egiten diren garraio-zerbitzuak eta portu-azpiegituren ustiaketa arautu, gainbegiratu eta kontrolatzeaz arduratzen da.

3.5 Beste organismo batzuk

- Portuetako eta Ibai-bideetako Erakundeen Elkarte Brasildarra (ABEPH)
- Logistikako Elkarte Brasildarra (ABRALOG)
- Portu-terminaletako Elkarte Brasildarra (ABTP)



- Karga-garraioaren Erabiltzaileen Elkarte Nazionala (ANUT)
- Garraioaren Konfederazio Nazionala (CNT)
- Karga-garraioko Enpresen Estatuarteko Federazioa (FENATAC)

4. Egungo egoera

Duela hainbat urtetatik, berrikuntza-prozesu baten beharrean dago Brasilgo portu-sarea, azpiegituri nahiz kudeaketari dagokionez. Azken aldian, pausoak eman dira norabide horretan. Hala, Portuen Idazkaritza Nazionala (SEP) sortu da, besteak beste, baina oraindik ere asko dago egiteko.

Instalazioei dagokienez, portu gehienek ez dute sakonera nahikorik zama-itsasontzi handiak jasotzeko. Ondorioz, portu gutxi batzuetan kontzentratzen dira horiek, eta gainezka egoten dira portu horietako instalazioak. Beharrezkoa da inbertsioak egitea dragatze-lanetan, ekipo eta makineriaren hobekuntzan eta segurtasunean.

Horrez gain, Brasilgo portuetan, ikaragarriko dokumentu-burokrazia dago salgaiak kargatu eta deskargatzeko. Horrek ere eragina du portuen produktibitatean, ilara luzeak sortzen baitira aduana-bulegoetan.

4.1 Merkatu-aukerak

2018aren amaierako hauteskundeen ondoren osaturiko gobernu berriaren helburuetako bat da ekonomia brasildarra gehiago integratu dadila nazioarteko zirkuitu ekonomikoan eta ekoizpen- eta merkataritza-kate globaletan, atzean utziz “coste Brasil” delakoa eragin zuen protekzionismo tradizionala. Oraindik ere ikusteko dago berrikuntza horiek guztiak egiteko gai izango diren, baina argi dago gobernu berriaren ardatz politikoetako bat portu-azpiegiturak modernizatzea dela.

Sektore pribatuarekin batera modernizazio hori lortzeko tresna nagusia *Programa de Parcerias e Investimentos (PPI)* izenekoa da. 2016an egin zen, Michel Temer presidente ohiaren gobernuan. Duela gutxi (2019ko maiatzean) aurkezturiko balantze baten arabera, azken 35 hilabeteetan, 193 proiekturen lehiaketak atera dira, eta, dagoeneko, horietatik 147 esleitu zaizkio ekimen pribatuari. Gaur egun esleipen-prozesuan dauden proiektuez gain, duela gutxi, beste 59 esleipen-prozesu aurkeztu dira PPIn.

Portuei dagokienez, programa horretan, sei inbertsio-proiektu berri jasotzen dira; horien artean, ontziratu gabeko likidoen (batez ere, erregaiak) garraiorako lau portu-terminal Itaqui-ko portuan (Maranhão estatua). Aurreikusten da ediktua aurten argitaratuko dela. Santos-eko portuko bi terminal ere sartu ziren multzo horretan. Horrez gain, gobernuak São Sebastião portua (São Paulo estatua) pribatizatzeke asmoa du. Hala, enpresa pribatu bati entregatu beharko zaio 35 urtez, eta 574 milioi errealeko inbertsioa egingo da.

Une honetan, proiektu-lizitazio hauek daude irekita Brasilgo portuetan:

PROIEKTUA	Zenbatekoa (mil.€)	Lizitatzailerak	Egoera
-----------	-----------------------	-----------------	--------



<i>STS 13A - Arrendamento de Granéis Líquidos no Porto de Santos/SP</i>	25,49	EPL, SNP, MTPA, ANTAQ, SPPI	5ª Reunião
<i>SUA 01 - Arrendamento de Veículos no Porto de Suape/PE</i>	1,73	EPL, SNP, MTPA, SPPI, ANTAQ	5ª Reunião
<i>SUA 05 - Arrendamento de Contêineres no Porto de Suape/PE</i>	275,72	MTPA, ANTAQ e EPL	5ª Reunião
<i>Terminais Portuários de Grãos no Porto Paranaguá/PR - (PAR 07, PAR 08 e PAR XX)</i>	210,69	MTPA, ANTAQ, EPL e APPA	3ª Reunião
<i>Terminal de Cavaco no Porto de Santana/AP - (MCP1)</i>	¿	ANTAQ, MTPA, EPL, CDSA	2ª Reunião
<i>Terminal de Celulose no Porto de Paranaguá/PR - (PAR01)</i>	19,90	ANTAQ, MTPA, EPL, APPA	2ª Reunião
<i>Terminal de Veículos no Porto de Paranaguá/PR - (PAR12)</i>	18,33	ANTAQ, MTPA, EPL, APPA	2ª Reunião